

LEGEALDI PLANA

PLAN DE LEGISLATURA

2023 - 2027

Urretxuko Udala



Urretxuko udala





Legealdi Plana

“Demokrazia herriaren
gubernua da, herriaren aldekoa
eta herriarentzat egiten dena.”

-Abraham Lincoln-

¿Zertarako Legealdi Plan bat?



Hau EAJ-PNVren hirugarren legealdia da Gobernu taldearen buruan. Lehenengo legealdia errekupeazioarena izan zen, bigarrena Urretxu berriaren egonkortze eta diseinuarena eta hirugarrena Urretxu berri horren exekuzioarena, oraingoan, gainera, PSE-EE ere Gobernu Taldean da.

Horretarako, ezinbestekoa da ahalik eta plangintzarik zehatzena, eta konkretuena egitea, baina aldi berean malgua; izan ere, urte hauetan Udalaren buru izan garenetan, behin baino gehiagotan ikasi eta egiaztatu dugu beharrak eta lehentasunak une batetik bestera alda daitezkeela, edozein ustekaberen aurrean, eta horretarako prest egon behar dugu. Egokitzeko gaitasuna ezinbestekoa da, bai guretzat, bai aurkezten ari garen plan honentzat.



MISIOA

Guztion ongizatean eta Urretxuren garapenean oinarritutako komunitatea eraikitzea,



Herritarren bizi kalitatea hobetu nahi dugu, haien espektatibak eta baliabideak kontutan hartuta, modu arduratsu eta efizientean..



Urretxuko udala



BISIOA

Herritarrei zuzendutako Udala, eskaintzen dizkiegun zerbitzu eta politika publikoen etengabeko hobekuntzarekin konprometitua, eta etorkizuneko aukerak eta aurrerapen sozial, ekonomiko eta pertsonalerako aukerak sortzeko gai izango dena.

BALOREAK

Eraginkortasuna

Lehen ahaleginean lana ondo egitea

Efizientzia

Lana ahalik eta kosturik txikienean egitea.

Errespetua

Herritarrenganakoa eta gainerako erakundeenganakoa, guztien iritziak, interesak eta beharrak entzun eta aintzat hartuta.

Justizia

Herritar bakoitzak behar duena jaso dezan, bere baldintzak edozein direla ere, arreta berezia jarritz pertsona eta kolektibo zaurgarriengan.

Koesioa eta bizikidetza

Garapenaren eta aurrerapenaren funtsezko faktoreak direnak

Ardura

Elkar zaintzeko eta garapen pertsonala, komunitarioa eta soziala lortzeko.

Zintzotasuna

eta dedikazio osoa, herritarrekin hartutako konpromisoari leial.

Partehartzea

eta entzute aktiboa, herritarrek politika publikoei buruzko erabakietan parte hartzeko aukera izan dezaten.

Ardatz eta helburu estrategikoak

Urretxuko 2023-2027 Legealdi Plana bost ardatzen gainean eraiki da. Ardatz horiek biltzen dituzte datozen lau urteetako Urretxuko udal politika artikulatuko duten esparruak, aurreko zortzi urteetan egindako bideari jarraituko diotenak eta, era berean, denon artean eraikitzen ari garen Urretxu berri horretara eramango gaituztenak.

1. JARDUERA EKONOMIKOA, GARAPEN EKONOMIKOA ETA ENPLEGUA

Udal esparrutik rol proaktiboa izaten jarraitzea, eskualde egiturekin koordinatutakoa eta eragile guztiak- publiko zein pribatuak- lerrokatzea helburu duena, xede bakar baterantz: jarduera ekonomiko eta enplegua sortzea.

2. ZORROZTASUN EKONOMIKOA ETA GARDENTASUNA KUDEAKETAN

Baliabide publikoak kudeatzen ditugu, guztionak, eta hain zuzen horregatik, arreta eta zorroztasun bereziarekin egin behar dugu; modu arduratsuan eta Urretxuar guztientzako onuratsua izango den hartan inbertituz.

Garrantzitsua da gure zerga-bilketarako gaitasunari eustea, zergak eta tasak kudeatzen eta biltzen eraginkorrak izatea; hortik etorriko baita zerbitzu-eskaintza bermatuko duten diru-sarrereren zati garrantzitsu bat.

Kudeaketa gardena, euro bakoitza non, nola eta zergatik gastatzen edo inbertitzen den azalduz.

3. JUSTIZIA SOZIALA

Lan dinamika eta baliabide berriekin berrindartu den departamentuaren antolaketa finkatzea. Lan egiteko modu berri horren bidez, pertsona eta kolektibo zaugarrienei arreta eta zerbitzuak bermatzea eta etorkizuneko egoerei -zahartzea, bakardadea, bizikidetza,...- aurrea hartzea, betiere berdintasun eta elkartasun printzipioaz aplikatuz, eta laguntzen kontrol zorrotzarekin.

Ardatz eta helburu estrategikoak

4. HIRI-GARAPEN HARMONIKOA ETA IRAUNKORRA

Errespetuzko hirigintza, teknikoa, arrazoizkoa, orekatua, gardena eta zintzoa bultzatzea. Hori guztia hazkunde eta modernizazio jasangarriaren esparruan. Aparkaleku eta mugikortasun arazoei erantzungo dieten oinarriak ezartzea, Urretxu eta Zumarragako bizilagunen interesak uztartuz. Bizilagunen premiei erantzun azkarra eta arina. Parke eta berdegune, plaza, instalazio, energia eta ur azpiegiturak, garbiketa, hondakinen kudeketa, segurtasuna, irisgarritasuna eta ingurumena hobetzeko plana. 2030 Agendarekin lerrokatuta dena.

5. HERRI BIZIA

Urretxu Udalerri euskalduna da, eta inplikazio eta parte-hartze handia du udalerriko kultur, kirol, gizarte eta elkartasun jardueretan. Lehendik dagoen mugimendu hori babesten jarraitu behar dugu eta datozen belaunaldietan baliabideak inbertitu, gazteria arloaren bitartez.

Hiri
Garapena

Enplegua

BERDINTAS

EUSKARA

AGENDA 2030

Garapen
Ekonomikoa

Inbertsio
Publikoa

Herri
Bizia

AGENDA 2030

Garapen
Jasangarria

EUSKARA

BERDINTAS

Zuzentasuna
eta
gardentasuna

AGENDA 2030

Justizia
Soziala

Plan hau garatuko den esparru orokorra zehaztu ondoren, 2023-2027 legealdirako gure hirugarren legealdi-plana zehaztuko dugu. Plan hori formalki hautatutako eta lehenetsitako ekintzen multzo modura ulertzen dugu, gure BISIOA lortu eta gure helburuak BALIOEN bitartez eta horien arabera bete ahal izateko.

Azken urteotan agerian geratu da testuinguru berri bat, non udalak tokiko kudeaketa garatu behar dugun, esparru lokal batean.

Gure Plana



Udalak onartu behar du, alde batetik, Urretxuri eta urretxuarrei balioa emango dien erakundea izan behar duela, lurralde-aktibo gisa, kalitatezko zerbitzu publikoak eskainiz; eta, bestetik, gobernu den aldetik, jarduera ekonomikoarekin, industrialarekin, enpleguarekin, dinamismo kulturalarekin, iraunkortasunarekin, gizarteratzearekin eta abarrekin lotutako proiektuetan oinarritutako proiektu partekatu baten formulazioa bultzatuz eta parte hartuz.

1. Garapen Ekonomikoa eta enplegua

1.1 Urola Garaiko Lehiakortasun Estrategian (ECUG 2023 – 2027) eta 2024an onartuko den eguneratzean jasotako markoa Urretxun hedatzea.

1.2. 2024-2030 eskualde-esparruan txertatutako tokiko ekosistema sozioekonomiko baten alde egitea.

1.3 Tokiko, eskualdeko eta inguruko eskualdeetako enpresen inbertsio-gaitasunak aztertzea, Urretxun ezartzeko.

1.4. Urretxun industria- eta zerbitzu-jarduerak ezartzen laguntzea eta hori bultzatzea.

1.5. Enplegu-aukerak sortzen dituzten ekonomia berdearekin lotutako enpresa-ekimenen ezarpena sustatzeko gizarte-berrikuntzako proiektuen garapena bultzatzea.

2. Merkataritza eta tokiko turismoa

2.1 Tokiko merkataritzarari laguntza orokorra handitzea.

2.2 Merkataritza Integraleko Plan bat egitea eta onartzea.

2.3 Hirigune Historikoaren eremua suspertzeko plan espezifiko bat egitea.

2.4 Urretxuk historiaren eta naturaren inguruan duen irudia bultzatzea.

2.5 Aterpetxea eta Santa Barbarako instalazioak bultzatzea, turismoa erakartzeko gune gisa.

2.6 Inaziotar bidea.

3. Landa ingurunea

3.1. Lehen sektorearen jarduera indartzea.

3.2 Erabilera publikoko bide eta pistak hobetzea.

4. Gobernu irekia

4.1 Urretxuko Udalaren Jokabide eta Gobernu Onaren Kodea eguneratzea.

4.2 Urretxuko Udalean gobernu irekiaren estrategia ezartzen jarraitzea.

4.3 Gardentasun-ataria garatzen eta egokitzen jarraitzea.

4.4 Herritarrek parte hartzeko eredu bat definitzea.

4.5 Datu-eredu ireki bat ezartzea.

4.6 Herritarrei kontu-emateko eredu bat ezartzea.

5. Ogasuna

†

- 5.1. Aurrekontu estrategikoak.
- 5.2. Udal finantzen kudeaketa arduratsua.

6. Barne kudeaketa eta pertsonen kudeaketa

- 6.1. Izapideen eskuliburua zabaltzea.
- 6.2. Barne-funtzionamenduko sistema berria.
- 6.3. Administrazio elektronikoa. Espediente elektronikoa.
- 6.4. Jakinarazpen elektronikoa.
- 6.5. Udal-araudia berrikustea eta egokitzea.
- 6.6. Hainbat arlotan plantilla finkatzea.
- 6.7 Langileen belaunaldien arteko errelebo-plana.

7. Ondarea

- 7.1. Ondare higiezinaren eta etorkizuneko erabileren katalogoa.
- 7.2. Kultura-ondarearen katalogoa.
- 7.3. Landa-ondarearen katalogoa.

8. Gizarte ekintza

- 8.1. Tokiko zaintza ekosistema. Programak.
- 8.2. Tokiko zaintza ekosistema. Zerbitzuak.
- 8.3. Gizarte inklusioa.
- 8.4. Aniztasuna.
- 8.5. Familiei eta adingabeei laguntzea.
- 8.6. Nazioarteko kooperazioa.
- 8.7. Adikzioen prebentzioa.

9. Berdintasuna

†

- 9.1. Indarkeria matxista.
- 9.2. Berdintasun-politikak ezartzea.

10. Obrak eta inbertsioak

- 10.1 Iparraldeko (Azkoitia) eta hegoaldeko (Aparicio) sarbideak hobetzea.
- 10.2 Udal igerilekuak.
- 10.3 Lilibaso kalea berrurbanizatzea.
- 10.4 Haur-parkeak berritzea eta mantentzea.
- 10.5 Mugikortasun pertsonal aktiboa bultzatzea
- 10.6 Pasiotarren eraikina. Aspacerako zentro berria eta adinekoentzako apartamentuak.
- 10.7 Pagoeta Gune Soziokulturala.
- 10.8 Aldiribi.
- 10.9 Adif eta bidegorriaren handitzea.
- 10.10 proiektuak egitea. Udalerriko hiri-hobekuntzarako inbertsioak gauzatzea.
- 10.11 Bidegorria Antzuolaraino luzatzea.
- 10.12 Obra txikiak.
- 10.13 Ondarea kontserbatzea.

11. Azpiegituren Mantenua

- 11.1. Mantentze prebentiboaren eta zuzentzailearen plana.
- 11.2. Brigadaren ekipamendua eta bestelako baliabideak.
- 11.3. Zoladura hobetzeko plana.
- 11.4. Espaloiak hobetzeko plana.
- 11.5. Ur-hornidura eta saneamendu-sare orokorra.



12. Hirigintza

- 12.1 Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapenak gauzatzea.
- 12.2 Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren xedapenak eguneratzea.

13. Ingurugiroa

13.1. Urretxuko 2030 Agenda eta Klima Aldaketari buruzko Plana abian jartzea.

13.2 Argiteria publikoan energia-eraginkortasuneko neurriak hartzen eta abiarazten jarraitzea, udal-eraikinak hornitzeko energia berriztagarrien bidez elektrizitatea sortzeko neurriak ezartzea, eta ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzen jarraitzea.

13.3 Urretxuko Ekiola. S.Koop.

13.4 EMAS ziurtagiria ezartzen jarraitzea.

13.5. Hiri-hondakinak biltzeko sistema. Gaikako bilketarekiko eta birziklapenarekiko konpromisoa.

13.6. Auzobusa.

14. Mugikortasuna eta trafikoa

14.1. Goiko auzoak erdigunearekin batzeko eta Irisgarritasun Plana egokitzeko proiektuak.

14.2. Oztopo arkitektonikoak kentzeko plana.

14.3. Ibilgailuen trafiko-fluxuak berrikustea eta araututako aparkaleku-espazio berrien beharra baloratu.

14.4. Mugikortasun Jasangarriaren Plana onartzea.

15. Segurtasuna

15.1. Udalerriko emergentzia plana

15.2. Bide eta egitura publikoetan bideozaintzako aztertzea eta ezartzea.

16. Bakea eta bizikidetzaz

16.1 Udalerrian bakea eta bizikidetzaz sustatzea.

17. Kultura

1

17.1. Kultur - instalazioak.

17.2. Zerbitzu kultural orokorrak.

17.3. Zerbitzu kulturalak. Liburutegia.

17.4. Zerbitzu kulturalak. Urrelur Museoa.

17.5. SCHWARZENBRUCK.

18. Kirola

18.1 Jarduera fisikoaren sustapena.

18.2 Kirol instalazioak.

19. Gazteria eta hezkuntza

19.1 Haur, nerabe eta gazteentzako arreta.

19.2 Udalaren eta ikastetxeen arteko harremanak mantentzea eta estutzea.

20. Euskara

20.1 Barne erabilera. Euskararen erabilera normalizatzeko plan estrategikoa.

20.2 kanpo erabilera. ESEP, Euskara Sustatzeko Ekintza Plana.

21. Festak

21.1. Herriko jaiak, auzoetakoak eta jai tradizionalak bultzatzea eta eguneratzea, udalerriko elkarte eta taldeekin elkarlanean.



Urretxuko udala